



DEBA GARAIA
LANDA GARAPENA

DEBAGARAIA LANDA GARAPENA	
DEBAGARAIA	
BOINA/DIA	2025.0520
HOZKERA/SALDA	25



2025eko Liztor Beltza Kanpaina

DEBA GARAIA Elkartea eta Bergarako Udalaren arteko lankidetzaz HITZARMENA, Gipuzkoako Foru Aldundiak Landa Garapenerako Elkarrekin adostutako prozedura baitan

BILDURIK:

- Dorleta Elkorobarrutia Pagoaga, NAN zenbakia 18.595.990 F, DEBA GARAIA (G20208393) Elkarteko lehenakaria dena.
- Gorka Artola Alberdi Jauna, NAN zenbakia 72.581.398 E, Bergarako Udaleko (P2007900J) Alkate dena.

ADIERAZTEN DUTE:

Liztor asiaticoen kontrolerako Foru Aldundiak Udalekin prozedura modu bat martxan jarri duela, horretarako NEKAGIP bidez aplikazio informatiko bat martxan jarri eta Udalei aukera ezberdinak emanaz. Aplikazioaren bidez liztor beltzaren Gipuzkoa mailako edapen datuak biltzen dira eta baita Udalak bere kabuz habiak tratatu ezin dituen eta pertsonengan arrisku bat suposatzen duenean Foru Aldundiko beste zerbitzu batzuk aktibatuzko aukera ematen du.

Eskualde mailan Foru Aldundiak martxan jarritako prozedura gestionatzeko Landa Garapen Elkartearen koordinazioa beharrezkoa zela ikusi zen eta Udal bakoitzak bere kontura bioziden aplikatzaile bat kontratatu beharrean eta kostu ekonomikoak gutxitzeko asmoz, 2014ko kanpaina Deba Garaia Elkartearen bidez egitea onartu zen, hala gauzatuz orain artekoan. Zerbitzua emateko Liztorlanak enpresarekin hitzarmen bat sinatu dugu, eskualde mailan zerbitzua baldintza berdinean emateko, Hitzarmena honekin batera erabazten da. Fakturazioa Liztorlanak enpresak Erabiltzaile bakoitzari egingo dio eta tarifa bakoitzari %21eko BEZa gehituko zaio fakturan.

Honen bidez 2025eko kanpainako prozedura DEBA GARAIA eta BERGARAKO Udalaren arteko konpromisoak adosten ditugu. Foru Aldundiak Liztor Beltzaren kontrolean jarri duen prozedura behar bezala jarraitzeko egin behar diren lanak era honetara banatzea:

BERGARAKO UDALA:

- **Herritarren deia jaso** (herritarren harrerako arduraduna jakinean jarri), Liztor Beltza dela **konfirmatu** (bertaratu eta web orriko informazioaz), **larrialdiko kasua den edo ez erabaki** (habearen kokapena kontuan hartuta eta inguruan dauden elementuak baloratuta, pertsonentzako arriskurik dagoen, linea elektrikorik dagoen, inguruan elementu arriskutsurik dagoen, ...), habia dagoen altuera kontuan izanda **artatu beharreko periferia definitu altuerari 2 metro gehituz**,



habitik 5 metro baino gutxiago inguratu beharra badago babes neurriak hartu (buzoa), gunea marra berdez señalizatu.

- Web orrian datuak sartu. **Bigarren habiak**, Biozidaz tratatzen badira, **web orritik DEBA GARAIari transferitu**, DEBA GARAIak egiteko modua adostu duen enpresarekin biozidaz tratatuko du habia, (Liztorlanak enpresa), eta udal langileak periferiaren zainketan eta materiala eramaten laguntza emango diote. Tirokatu egiten bada Udaltzainek arduratuko dira eta behar diren neurriak hartu protokoloa jarraituz.
- Web orrian Larritasunaren arabera:
 - Larritasun kasua: Kanpoko baliabideak behar diren bidetik jarraitu (**SUHILTZAILEAK EDO BASOZAINAK**), **web orritik transferitu**, eta larrialdiko zerbitzuen mezuak web gunetik jarraitu.
 - Larritasun kasua ez bada: **DEBA GARAIara transferitu**.
- Larritasun kasua ez denean DEBA GARAIarekin batera habia suntsitzeko modua adostu eta Udaleko langile bat laguntzaile lanak egiteko jarri.
- Habia suntsitu ondoren, **marra gorria** egin eta web orriko informazioa osatu. Habiak kentzea erabakitzen bada poltsa baten sartu eta erre.
- Suntsitzeko modua tiroaz bada, eta tranpak jarri behar badira, Basaninmalien eta Landareen Zerbitzuan parte eman behar da, **egoitza elektronikoaren bidez, Tel. 943112149**

DEBA GARAIA:

- Habia suntsitzeko prozedura adostu Udalarrekin, modua, bitartekariak eta eguna eta ordua planifikatu.
- Biozida Aplikazioa egin, horretarako behar den pertsona kualifikatua Liztorlanak enpresaren bidez koordinatu. Foru Aldundiko arduradun teknikoaren aginpean egingo du lana eta Udaletxeko langile baten laguntzarekin. Biozida aplikatzeko habia dagoen altura kontuan izanda artatu beharreko **periferia definitu altuerari 2 metro gehituz** eta lana egiteko behar diren babes neurriak hartu (pertsonentzako arriskuak, erreka edo iturrietara distantziak, ...).
- Tratatu ondoren web orriko informazioa osatu.
- Bestelakoak Udaletxean beharren arabera eta gure baliabidean arabera.

Eta dokumentu honetan jasotakoak adostasuna azaltzeko, akordio hau izenpetzen dute, Bergaran, 2025eko maiatzaren 15a.

DORLETA
ELKOROBARRUTIA
PAGOAGA -
18595990F

Digitaliki sinatuta
norenagatik: DORLETA
ELKOROBARRUTIA PAGOAGA
- 18595990F
Data: 2025.05.19 12:25:53
+02'00'

DEBA GARAIA

Dorleta Elkorobarrutia Pagoaga

BERGARAKO UDALA

Gorka Artola Alberdi



EKS | CSV: SINAa25640a8-c043-4d46-bce0-e8e2f64fd43e

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07410>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07410>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2025eko Liztor Beltza Kanpaina
CSV/EKS:	SINAA25640a8-c043-4d46-bce0-e8e2f64fd43e

Digitalki sinatua:



Bergarako
Udala

Artola Alberdi, Gorka
Alkatea
Data: 2025/05/23 10:17:16

